

Jurdana Uriarte Lejarragak, Bermeoko Udaleko idazkari nagusiak, ziurtatzen dot, 2021-03-16(e)(a)n, TOKIKO GOBERNU BATZARRAK erabagi hau hartu dauela:

5.- ITXAS-GANE FUTBOL ZELAIAREN ERABILERA PRIBATIBORAKO ADMINISTRAZIO EMAKIDA ZUZENEAN ESLEITZEKO BALDINTZA AGIRIAK ONARTZEA.

Xedea

Itxas-gane futbol zelaiaren erabilera pribatiborako administrazio emakida zuzenean esleitzeko baldintza agiriak onartzea

Aurrekariak

Lehenengoa: Itxas-gane futbol zelaiaren erabilera baimena iraungita dago. Horiek horrela, emakida berria esleitzeko prozedura izapidetu behar da, eta horretarako oinarriak prestatu dira Idazkaritza Sailean.

Bigarrena: Udal Arkitektoak espediente honen xede den jabari publikoko ondasunaren balorazioa eta hirigintza kalifikazioari buruzko txostena igorri du, 2021eko otsailaren 9ko dataz.

Hirugarrena: 2021eko otsailaren 19an, Errenta Saileko teknikariak txostena eman du, emakida dela eta ordaindu beharreko kanonari buruz.

Laugarrena: Halaber, espedientean Idazkaritzako AOTren txosten juridikoa dago, 2021eko otsailaren 19koa.

Argudioak

Lehenengoa: Emakidaren xede den futbol-zelaia jabari publikoko ondasuna da, erabilera publikoari atxikita, ekainaren 23ko 1372/1986 Errege Dekretuak, Toki Erakundeen Ondasunen Erregelamendua onartzen duenaren 3. artikularekin bat etorriz.

Bigarrena: Proposatutako okupazio-izaera eta -epea kontuan hartuta, jabari publikoko erabilera pribatiboa da, eta, beraz, dagokion emakida eman beharko da.

Hirugarrena: Herri Administrazioen Ondareari buruzko azaroaren 3ko 33/2003



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.
Kodea:
07E5000625A800M4X9N8M8C4H5

Sinadurea eta data

JURDANA URIARTE LEJARRAGA-IDAZKARI NAGUSIA - 17/03/2021
ARITZ ABAROA CANTUARIENSE-BERMEOKO ALKATEA - 17/03/2021
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 17/03/2021
08:26:03

EXPEDIENTE ::
2020IDA_ERA_0260
Data: 28/12/2020
Lekua: Bermeon
Erregistro unidatea:
Erregistro nagusia

CSV: 07E5000625A800M4X9N8M8C4H5



Legearen 137.4. artikulua ezartzen du jabari publikoko ondasunen gaineko emakida erabaki ahal izango dela, zuzeneko esleipenaren bidez, higiezina beharrezkoa denean zerbitzu publikoko funtzio bat betetzeko edo interes orokorreko helburu bat betetzeko. Kasu honetan, futbol taldeak zelaian egingo den jardueran parte hartzen du, eta, beraz, kirol-lehiaketa eta -lehiaketa ofizialen bidez udalerrriaren irudia proiektatu eta argitaratzen du, kirola ume eta nerabeengan sustatuz.

Hala, Bermeoko Futbol Taldea izeneko futbol-kluba izan da, orain arte, instalazio horiek erabili dituen elkarte bakarra, eta gaur egun hala inskribatuta dagoen udalerriko futbol elkarte bakarra.

Laugarrena: Testuinguru horretan, Bermeoko Udala, bere interesak kudeatzeko eta bere eskumenen esparruan, Konstituzioaren 43.3 artikuluan eta Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 25. artikuluan ezarritakoaren arabera, gaituta dago era guztietako jarduerak egiteko eta auzotarren beharrak eta nahiak asetzen laguntzen duten zerbitzu guztiak emateko, besteak beste, herritarren kirola eta aisia sustatzeko. Era berean, Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 14ko 2/2016 Legearen 17.1.19 artikulua dio udalerriei dagokiela kirola eta kirol-jarduerak antolatzea eta sustatzea, bai eta erabilera publikoko kirol-ekipamenduak kudeatzea.

Ildo horretatik, apirilaren 18ko 781/1986 Errege Dekretuak, 111. artikuluan eta hurrengoetan, ahalmena ematen die toki-erakundeei komenigarritzat jotzen dituzten kontratuak, itunak edo baldintzak hitzartzeko, eta berariaz administrazio-kontratutzat jotzen ditu, ondare-erakundeak izanik ere, interes orokorreko helburu baten ohiko jardunari zuzenean lotuta daudenak.

Bosgarrena: Kontuan izanda negozio juridiko hori dagokion herri-jabariko emakida egilestearen mende dagoela eta bere legeria propioa izango duela, hori izango da administrazio publikoen ondasunak arautzen dituen, eta, beraz, Sektore Publikoko Kontratuaren 9/2017 Legearen eremutik kanpo geratuko da, nahiz eta, lege-hutsuneen kasuan, kontratu-araudi publikoaren printzipioak aplikatu behar zaizkion.

Seigarrena: Emakidaren oinarriak eta esleipena onartzeko ahalmenari dagokionez, Sektore Publikoen Kontratuak arautzen duen 9/2017 Legearen II. Xedapen Gehigarriaren 9. atalaren arabera, ahalmena alkateari dagokio, oinarrizko aurrekontua ez baita egungo udal aurrekontuko baliabide arrunten % 10 baino handiagoa. Hala ere, 2021eko otsailaren 2ko 255 zenbakidun Alkatetza Dekretu bidez, eskumena Tokiko Gobernu Batzarrarengan eskuordetu da.

Erabakia



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoa egiaztatu ahal dozu.

Kodea:
07E5000625A800M4X9N8M8C4H5

Sinadurea eta data

JURDANA URIARTE LEJARRAGA-IDAIZKARI NAGUSIA - 17/03/2021
ARITZ ABAROA CANTUARIENSE-BERMEOKO ALKATEA - 17/03/2021
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 17/03/2021
08:26:03

EXPEDIENTE ::
2020IDA_ERA_0260
Data: 28/12/2020
Lekua: Bermeon
Erregistro unitadea:
Erregistro nagusia



Tokiko Gobernu Batzarrak bozketa nominatiboari ekin dio eta aho batez erabaki du:

LEHENENGOA: Itxas-gane futbol zelaiaren erabilera pribatiborako administrazio emakida zuzenean esleitzeko baldintza agiriak onestea.

BIGARRENA: Bermeoko Futbol Taldeari honako agiri hauek 15 eguneko epean aurkezteko eskatzea, erabaki hau jaso eta biharamunetik hasita:

- Erantzukizuneko aitorpena, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 70. artikuluan kontratatzeko ezarritako debekuetan sartuta ez dagoela eta Foru Ogasunarekiko, udal honekiko eta Gizarte Segurantzarekiko zerga-betebeharrak egunean dituela adierazten duena, I. Eranskineko ereduaren arabera.

- Zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak eguneratuak dituela frogatzen duten agiriak, edo udalari horren egiaztapena zuzenean lortzeko baimena ematen dioten agiria, II. Eranskineko ereduaren arabera.

- Erantzukizun zibileko aseguruaren kopia.

- Auto-babes planaren kopia.

HIRUGARRENA: Ohartaraztea eskatutako agiriak emandako epean aurkezten ez badirela, kontzesioari uko egiten zaiola ulertuko dela.


LAUGARRENA: Espedientea jendaurrean jartzea, Bizkaiko Aldizkari Ofizialean iragarkia argitaratuta. Halaber, Idazkaritza sailean eta kontratugilearen profilean kontsultatu ahalko da.

BOSGARRENA: Erabaki hau Idazkaritza sailari, Ekonomia sailari eta ATBri helaraztea, jakinaren gainean egon daitezten dagozkion ondorioetarako.

SEIGARRENA: Hurrengo O soko Bilkuran erabaki honen berri ematea.

Eta honela izan daiten eta ondorio egokiak eragin daizan, ziurtagiri hau idazten dot, erabagia agertzen dan akta behin betiko onespeneren menpean dagoela ohartarazota (Toki Erakundeen Antolakuntza, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoa onartzen duen azaroaren 28ko 2568/1986 EDaren 206. artikulua arabera), Aritz Abaroa Cantuariense alkatearen aginduz eta oneretxiaz.

Orrri-oinean sinatzailea eta data



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.

Kodea:
07E5000625A800M4X9N8M8C4H5

Sinadurea eta data

JURDANA URIARTE LEJARRAGA-IDAZKARI NAGUSIA - 17/03/2021
ARITZ ABAROA CANTUARIENSE-BERMEOKO ALKATEA - 17/03/2021
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 17/03/2021
08:26:03

EXPEDIENTE ::
2020IDA_ERA_0260
Data: 28/12/2020
Lekua: Bermeon
Erregistro unidatea:
Erregistro nagusia

CSV: 07E5000625A800M4X9N8M8C4H5

